

Herniora goaz

Orain Herniora heltzeko bideetako bat ezagutuko dugu. Mapa aztertu eta datuak irakurrita, ordenatu testua:



Gailurra

Hernio (1.075 m.)

Kokapena

Hernio mendigunea, Azpeitia eta Tolosa artean, Gipuzkoako Urola Kosta eta Tolosaldea eskualdeetako mugan.

Zailtasun-maila

Erraza.

Malda eta igotzeko denbora

665 m, eta 2 ordu eta 45 minutu (ordu eta erdiko igoera).

Komunikazioak

Azpeitian, GI-2634 errepidea hartu Errezileraino, eta bihurgune handi batera heldu arte jarraitu, 12,5 kilometro-puntuak.

- A** Magaletako herri guztietatik daude igotzeko bideak, eta bide horiek guztiek bat egiten dute Zelatun lepoan, bida-bukaerako gurutze-bideari ekin aurretik. Oraingoan, biderik agian ospetsuena aukeratu dugu, Errezil herritik abiatzen den bidea, alegia.
- B** Geraletuaren ondoan, zamantuzko mendi-bide baten hasiera dago. Bideak sigi-saga egiten du gora, eta atzean uzten ditu magal aldapatsuetan dauden baserri ugariak.
- C** Horretaz gain, mendigune hartako gailurrik garaienaren buru, bada orientazio-mahai bat. Egun argia izanez gero, Kantauri itsasoa eta herrialde horretako tontorrik garaienak ikusteko aukera izango dugu.
- D** Gurutze-bidetik jarraitu baino ez dugu, eta gailurrera iritsiko gara. Han, gurutze ugari aurkituko dugu, baina zenbait gutunontzi ere.
- E** Ibilbidea Tolosarako GI 2634 errepideko bihurgune zabal batean hasten da. Errezildik kilometro pare batera ferra-iburako bihurgune bat dago, eta, han, autobus-geraleku bat.
- F** Lepo hartan, eskuinera egingo dugu, gailurrerako bideko azken zatia ekiten asmoz. Ondo markatutako bide ikusgarri bat hartu ondoren, hegoaldeko norabidea hartuko dugu, gailurreko harkaitzen artean, tontorretik hurbil dagoen aterpetxera heldu arte.
- G** Asfaltoa saihesteko, hainbat lasterbidetan zehar egingo dugu aurrera, eta, ordubeteren buruan (55'), Zelatun mendatera helduko gara. Lepo atsegina hartan, indarberrituko gara, atseden hartzeko aterpetxea eta taberna baitaude bertan.

1	2	3	4	5	6	7